IRAGARKIA, 2002ko azaroaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendaurreko informaziopean jartzen da Hondarribiko udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: «Kirol Portu» izeneko 13,2 kV-ko transformazio zentroa (Mota: lur azpiko bikoitza). 23109

IRAGARKIA, 2002ko azaroaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendaurreko informaziopean jartzen da Aiako udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: «Ubegun I» izeneko 13,2 kV-ko transformazio zentroa (Mota: txabola bikoitza). 23109

IRAGARKIA, 2002ko azaroaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendaurreko informaziopean jartzen da Legazpiako udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: «Olaberria» izeneko 13,2 kV-ko transformazio zentroa (Mota: txabola garai bikoitza). 23110

IRAGARKIA, 2002ko azaroaren 11koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez jendaurreko informaziopean jartzen da Zestoako udalerrian egin beharreko honako proiektu hau: «Aizarna» izeneko 13,2 kV-ko transformazio zentroa (Mota: lonja bakuna). 23111

IRAGARKIA, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoarena. Honen bidez, Zeraingo (Gipuzkoa) udal-barrutiko etxebizitza eta saltokietan erabiltzeko gas propano kanalizatua (B erako presio ertainekoa) banatzeko sareari dagokion proiektua burutzeko administrazio baimena eskatu da eta jendaurrean jartzen da. 23112

# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-7307

282/2002 Dekretua, abenduaren 3koa, zeinaren bidez honako instalazio hauek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio baimenerako prozedurak arautzen diren: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere.

Sektore Elektrikoaren Legean (54/1997 Legea, azaroaren 27koa) xedatuta dago aldez aurretik administrazio baimena behar dela argindarra ekoitzi, garraiatu na-

ANUNCIO de 11 de noviembre de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Centro de transformación a 13,2 kV, tipo subterráneo doble, denominado «Kirol Portua» en el término municipal de Hondarribia. 23109

ANUNCIO de 11 de noviembre de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Centro de transformación a 13,2 kV, tipo caseta doble, denominado «Ubegun I» en el término municipal de Aia. 23109

ANUNCIO de 11 de noviembre de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Centro de transformación a 13,2 kV, tipo caseta elevada doble, denominado «Olaberria» en el término municipal de Legazpia. 23110

ANUNCIO de 11 de noviembre de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública el Proyecto de Centro de transformación a 13,2 kV, tipo lonja sencilla, denominado «Aizarna» en el término municipal de Zestoa. 23111

ANUNCIO de la Oficina Territorial de Gipuzkoa, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, por el que se somete a Información Pública el Proyecto referido a una Red de distribución de gas propano canalizado, en Media Presión B, para usos domésticos y comerciales en el término municipal de Zerain (Gipuzkoa) para el que se solicita autorización administrativa. 23112

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-7307

DECRETO 282/2002, de 3 de diciembre, por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como de las acometidas, líneas directas e instalaciones de conexión de consumidores.

La Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico establece la necesidad de autorización administrativa previa para la construcción, modificación, ex-

hiz banatzeko instalazioak (erregimen bereziko argindar ekoizpena barne) eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko.

Instalazio elektrikoetarako baimenak ematea autonomia erkidegoei dagokie, bakoitzari bere estatutuaren eremuan, baldin instalazio horien aprobetxamenduak beste autonomia erkidegoren bati eragiten ez badio edo baldin argindarraren garraioa edo banaketa bere lurralde eremutik irteten ez bada. Orobat, autonomia erkidegoenak dira instalazio horiei buruzko ikuskatze eta zigortze aginpideak. Halaxe dago jasota arestian aipatutako lege testuko 3.3 artikuluan.

Horregatik, lege testu horretako lehenengo azken xedapenean legearen oinarri izaera jasotzen den arren, ez dago inolako aipamenik administrazio prozedurei buruz. Prozedura horiek arautzea, kasu bakoitzean aginpidea duen Administrazioaren esku uzten da.

Horiek horrela, 1955/2000 Errege Dekretuan (abenduaren 1ekoa) xedatu da Estatuko Administrazio orokorraren eskumenekoak diren instalazio elektriko guztietarako baimen erregimena; formulatzeko geratu dira autonomia erkidegoen eskumenekoak diren administrazio prozedurak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, 115/2002 Dekretuan (maiatzaren 28koa) arautu da, espezifikoki, parke eolikoen bidez energia eolikotik argindarra ekoizten duten instalazioak baimentzeko prozedura.

Horregatik guztiagatik, eta hor den arau hutsunea betetze aldera, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren instalazioen administrazio baimenak emateko prozedura arautzea. Herri onurakotzat izendatzea edo ingurumenaren gaineko eragina balioztatzea beharrezko ez denean, bizkortasun handiagoa eman beharko zaio prozedurari; hartara, gehien egiten diren instalazioak baimentzea eta abian jartzea erraztuko da. Era berean, egoki deritzogu instalazio elektriko horiei buruzko eskualdatzeen, ixteen, azterketen, ikuskatzeen, erantzukizunen eta zigorren erregimena arautzeari.

Horregatik guztiagatik, Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2002ko abenduaren 3ko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren,

plotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica incluida la producción de energía eléctrica en régimen especial.

El otorgamiento de las autorizaciones de las instalaciones eléctricas cuando su aprovechamiento no afecte a otras Comunidades o cuando el transporte o la distribución no salga de su ámbito territorial corresponde, de conformidad con el articulo 3.3 del citado texto legal, a las Comunidades Autónomas en el ámbito de sus respectivos Estatutos, así como el ejercicio de las competencias de inspección y sanción que afecten a dichas instalaciones.

Por ello, si bien la Disposición Final Primera del citado texto consagra el carácter básico de la Ley se excluyen del mismo todas las referencias a los procedimientos administrativos cuya regulación se encomienda a la Administración que, en cada supuesto, resulte competente.

En este contexto el Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, ha establecido el régimen de autorización correspondiente a todas las instalaciones eléctricas competencia de la Administración General del Estado quedando pendientes de formulación aquellos procedimientos administrativos en los que sean competentes las Comunidades Autónomas.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Decreto 115/2002, de 28 de mayo, ha regulado de manera especifica el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos.

Por todo ello y con la finalidad de cubrir el vacío normativo existente es preciso regular el procedimiento para el otorgamiento de las autorizaciones administrativas de la generalidad de instalaciones cuya competencia corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco dotándole de mayor agilidad en aquellos supuestos en que no sea preciso la declaración de utilidad publica o la evaluación de impacto ambiental, con objeto de facilitar de este modo la autorización y puesta en servicio de las instalaciones más frecuentes. Asimismo se considera oportuno reglamentar el régimen de las transmisiones, cierres, revisiones, inspecciones, responsabilidades y sanciones relativos a las citadas instalaciones eléctricas.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 3 de diciembre de 2002,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio baimenak emateko prozedurak arautzea.

2.– Berebat, dekretu honetan araututa daude instalazio horiei dagozkien aldian behingo azterketak eta ikuskapenak, erantzukizunak eta zigorrak.

*2. artikulua.–* Aplikazio eremua.

1.– Dekretu honetako xedapenak argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazio elektrikoei aplikatuko zaizkie, bai eta artikulu honen 2. idatz-zatian zehaztutakoei ere, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean izatea.

b) Garraioa edo banaketa autonomia erkidego honen lurralde eremutik ez irtetea.

c) Instalazio horien aprobetxamenduak beste autonomia erkidegoren bati ez eragitea.

Ekoizteko instalazioen kasuan, aprobetxamenduak autonomia erkidego bati baino gehiagori eragiten diola joko da, baldin potentzia instalatua 50 MW-ekoa baino gehiagokoa bada.

2.– Dekretu hau, orobat, ondorengo instalazio hauei aplikatzekoa da, argindarra banatzeko sareetako parte ez badira ere:

a) Garraio edo banaketa sareari sorkuntzako edo kontsumitzaileen zentralak konektatzeko instalazioei, eta, oro har, kontsumitzaile batek bakarrik erabiltzeko diren linea elektrikoei.

b) Zuzeneko lineei, baldin titular bera duten edo kontsumitzaile kualifikatu batenak diren sorkuntza zentro bat eta kontsumo zentro bat lotzeko badira.

3.– Parke eolikoetarako administrazio baimenetan, 115/2002 Dekretuan (maiatzaren 28koa, parke eolikoen bidez energia eolikotik argindarra ekoizten duten instalazioak baimentzeko prozedura arautzen duena) arautakoari jarraitu beharko zaio, baldin parke eolikoak ezaugarri hauek baditu: a) guztira gutxienez 500 kW-eko potentzia instalatua duten aerosorgailu bat edo gehiagoz osatutako instalazioa izatea; b) aerosorgailuak sare propioen bidez elektrikoki elkarri lotuta egotea; c) aerosorgailuek irispide eta kontrol egitura bera partekatzea; d) energia neurketa propioa izatea; eta e) sare orokorrari konektatuta egotea.

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto regular los procedimientos de otorgamiento de las autorizaciones administrativas para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, cuya competencia corresponda a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Asimismo, se regulan en el presente Decreto las revisiones e inspecciones periódicas, responsabilidades y sanciones concernientes a dichas instalaciones.

*Artículo 2.–* Ámbito de aplicación.

1.– Los preceptos de este Decreto se aplicarán a las instalaciones eléctricas de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como a las descritas en el apartado 2 de este artículo, siempre que concurran las circunstancias siguientes:

a) Que las instalaciones estén radicadas en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Que el transporte o distribución no salga del ámbito territorial de esta Comunidad Autónoma.

c) Que su aprovechamiento no afecte a otras Comunidades Autónomas.

En el caso de las instalaciones de producción, se entenderá que su aprovechamiento afecta a más de una Comunidad Autónoma cuando su potencia instalada sea superior a 50 MW.

2.– El presente Decreto también es de aplicación a las siguientes instalaciones, aunque no formen parte de las redes de distribución de energía eléctrica:

a) Instalaciones de conexión de centrales de generación o de consumidores a la red de transporte o distribución y, en general, las líneas eléctricas para uso exclusivo de un consumidor.

b) Líneas directas, que enlacen un centro de producción con un centro de consumo del mismo titular o de un consumidor cualificado.

3.– Las autorizaciones administrativas de Parques Eólicos, siempre que los mismos constituyan una instalación integrada de uno o varios aerogeneradores con una potencia total instalada igual o superior a 500 kW, interconectados eléctricamente mediante redes propias, compartiendo una misma estructura de accesos y control, con medición de energía propia y conexión a la red general, se regirán por lo dispuesto en el Decreto 115/2002, de 28 de mayo, por el que se regula el procedimiento para la autorización de las instalaciones de producción de energía eléctrica a partir de la energía eólica, a través de Parques Eólicos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Aurreko paragrafoan sartzen ez diren instalazio eolikoetarako, dekretu honetan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

4.– Dekretu honen aplikazio eremutik at daude instalazio hauek:

a) Argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, Estatuko Administrazio orokorraren eskumenekoak direnak.

b) Voltaje nominala 1 kV-ekoa edo gutxiagokoa dutenak, salbu eta herri onurakotzat izendatzea eskatzen bada.

*3. artikulua.*– Instalazioen sailkapena.

– Dekretu honen aplikazio eremuaren baitako instalazio elektrikoak talde hauetan sailkatuta daude:

a) Lehenengo taldea.

– Erregimen arruntean ekoizteko instalazioak eta haien ebakuazio lineak.

– Garraio instalazioak.

– 30 kV-etik gorako voltaje nominala duten banaketa instalazioak.

– Aurrekoetan sartzen ez den edozein instalazio, baldin herri onurakotzat izendatzea eskatzen bada edo ingurumenaren gaineko eragina banaka balioztatu beharrekoa bada.

b) Bigarren taldea.

– Erregimen berezian ekoizteko instalazioak eta haien ebakuazio lineak.

– 30 kV-eko edo gutxiagoko voltaje nominala duten banaketa instalazioak.

– Garraio edo banaketa sareari kontsumitzaile bat konektatzeko instalazioak, zuzeneko lineak, eta, oro har, kontsumitzaile batek bakarrik erabiltzeko diren lineak.

– Luzatzeko instalazioak.

c) Hirugarren taldea.

– Aldi baterako instalazioak.

*4. artikulua.*– Organo aginpidedunak.

Titularitatea Euskal Autonomia Erkidegoarena duten baimenak emateko aginpideak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Energia Zuzendaritzak erabiliko ditu.

*5. artikulua.*– Baimen beharra.

1.– Dekretu honen aplikazio eremuan instalazioak eraikitzeko, ustiatzeko, handitzeko, funtsezko aldaketak egiteko, eskualdatzeko eta ixteko, dagokionean, artikulu honetan adierazitako administrazio baimenak behar dira.

2.– Ondorengo administrazio ebazpen hauek beharko dira 3. artikuluko lehenengo eta bigarren taldeetan sartutako instalazioetarako:

Las instalaciones eólicas no incluidas en el párrafo anterior se regularan por lo dispuesto en el presente Decreto.

4.– Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente Decreto las instalaciones siguientes:

a) Las de producción, transporte y distribución de energía eléctrica cuya competencia sea de la Administración General del Estado.

b) Las de tensión nominal igual o inferior a 1 kV., salvo que se solicite para las mismas la declaración de utilidad pública.

*Artículo 3.*– Clasificación de instalaciones.

Las instalaciones eléctricas incluidas en el ámbito de aplicación del presente Decreto se clasifican en los siguientes grupos:

a) Grupo primero.

– Instalaciones de producción en régimen ordinario y sus líneas de evacuación.

– Instalaciones de transporte.

– Instalaciones de distribución de tensión nominal superior a 30 kV.

– Cualquier instalación no incluida en las anteriores, si se solicita la declaración de utilidad pública o está sujeta a evaluación individualizada de impacto ambiental.

b) Grupo segundo.

– Instalaciones de producción en régimen especial y sus líneas de evacuación.

– Instalaciones de distribución de tensión nominal igual o inferior a 30 kV.

– Instalaciones de conexión de un consumidor a la red de transporte o distribución, líneas directas y, en general, las líneas para uso exclusivo de un consumidor.

– Instalaciones de extensión.

c) Grupo tercero.

– Instalaciones temporales.

*Artículo 4.*– Órganos competentes.

Las competencias para otorgar las autorizaciones cuya titularidad corresponda a la Comunidad Autónoma del País Vasco, serán ejercidas por la Dirección de Energía del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

*Artículo 5.*– Necesidad de autorización.

1.– La construcción, explotación, ampliación, modificación sustancial, transmisión y cierre de las instalaciones en el ámbito de aplicación del presente Decreto requiere, en su caso, las autorizaciones administrativas que se indican en este artículo.

2.– Las instalaciones incluidas en los grupos primero y segundo del artículo 3, requerirán las resoluciones administrativas siguientes:

a) Administrazio baimena, instalazioko aurreproiektuarena. Dokumentu tekniko hori, dagokionean, ingurumenaren gaineko eraginaren azterketarekin batera izapidetuko da. Orobat, beharrezko denean, zehazki herri onurakotzat izendatzeko izapideak abiatzea ahalbidetuko du.

b) Gauzatzeko proiektua onartzea. Instalazioaren proiektu konkretuari buruzkoa da, eta titularrari instalazioa eraikitzeko edo ezartzeko baimena ematen dio.

c) Ustiatzeko baimena. Proiektua gauzatu eta gero, instalazioetan voltajea sartu eta merkataritza ustiaketa egiteko baimena da.

3.– Ez dute administrazio baimenik behar 3. artikuluko hirugarren taldean sartzen diren instalazioek. Hala ere, dekretu honetako IV. kapituluan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte, abian jartzeko.

4.–Dekretu honetako 3. artikuluko lehenengo eta bigarren taldeetan sartzen diren instalazioak eskualdatzeko eta ixteko, administrazio baimena beharko da.

5.– Artikulu honetako 2.a. idatz-zatian adierazitako baimenak emateak ez du kentzen beharrezko emakidak eta baimenak izan beharra, aplikagarri diren beste xedapen batzuei jarraituz, eta, batez ere, lurralde antolamenduari eta ingurumenari buruzko xedapenei jarraituz.

*6. artikulua.*– Baimen eskaerak.

1.– 5. artikuluan adierazitako baimenen eskatzaileek, instalazioa dagoen lurralde historikoko Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde bulegoan aurkeztu beharko dute eskaera. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa) 38.4. artikuluan zehaztutako beste edozein tokitan aurkez daitezke eskaerak.

2.– Eskaera horiek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Lege horretako 70. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

3.– Probintzia bat baino gehiagoko linea elektrikoak direnean, aurreko idatz-zatietan adierazitako izapidea probintzia bakoitzean egin beharko da. Behinik behin, oraindik orain aipatutako lurralde bulego horietako bakoitzean, dagokien parteari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

4.– Nahiz bata bestearen ondoren, nahiz aldi berean, nahiz elkarrekin eska daitezke 5.2. artikuluan zehaztutako administrazio baimena eta gauzatzeko proiektua.

*7. artikulua.*– Eskatzailearen gaitasuna.

a) Autorización administrativa, que se refiere al anteproyecto de la instalación como documento técnico que se tramitará, en su caso, conjuntamente con el estudio de impacto ambiental. Asimismo, en los casos en los que resulte necesario, permitirá la iniciación de los trámites correspondientes para la declaración de utilidad pública en concreto.

b) Aprobación del proyecto de ejecución, que se refiere al proyecto concreto de la instalación y permite a su titular la construcción o establecimiento de la misma.

c) Autorización de explotación, que permite, una vez ejecutado el proyecto, poner en tensión las instalaciones y proceder a su explotación comercial.

3.– Las instalaciones incluidas en el grupo tercero del artículo 3, no requieren autorización administrativa, sin perjuicio de la necesidad de cumplir los requisitos establecidos en el capítulo IV del presente Decreto para su puesta en servicio.

4.– La transmisión y cierre de las instalaciones incluidas en los grupos primero y segundo del artículo 3 del presente Decreto, precisarán, en su caso, de autorización administrativa.

5.– Las autorizaciones a las que hace referencia el apartado 2.a. del presente articulo, serán otorgadas sin perjuicio de las concesiones y autorizaciones que sean necesarias, de acuerdo con otras disposiciones que resulten aplicables, y en especial, las relativas a la ordenación del territorio y al medio ambiente.

*Artículo 6.*– Solicitudes de autorización.

1.– Los peticionarios de las autorizaciones indicadas en el artículo 5 deberán presentar la solicitud en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo del Territorio Histórico donde radique la instalación. Igualmente, podrán presentarse las correspondientes solicitudes en cualquiera de los lugares a que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Las solicitudes indicadas deberán reunir los requisitos establecidos en el articulo 70 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común, antes citada.

3.– Cuando se trate de líneas eléctricas de carácter interterritorial, deberá realizarse el trámite indicado en los apartados anteriores por Territorios, presentando como mínimo, en cada una de las Oficinas Territoriales citadas, la documentación correspondiente a la parte que les afecte.

4.– Las solicitudes de autorización administrativa y aprobación del proyecto de ejecución definidas en el artículo 5.2. podrán efectuarse de manera consecutiva, coetánea o conjunta.

*Artículo 7.*– Capacidad del solicitante.

Argindarra banatzeko eta garraiatzeko instalazioen baimenaren eskatzaileek, 1955/2000 Errege Dekretuko (abenduaren 1ekoa) 37. eta 121. artikuluetan ezarritako baldintzetatik, aplikagarri zaizkienak bete beharko dituzte, jarduera egiteko.

II. KAPITULUA
LEHENENGO TALDEKO INSTALAZIOAK BAIMENTZEA

*8. artikulua.–* Administrazio baimenaren eskaera.

1.– Administrazio baimenaren eskaerarekin batera, dagokionean, 7. artikuluan adierazitako eran eskatzailearen gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu behar dira.

2.– Eskaerarekin batera, instalazioaren aurreproiektua aurkeztuko da. Aurreproiektuak teknikari eskudunaren sinadura eta haren elkargo ofizialaren ikus-onetsia izan beharko ditu. Aurreproiektuak, gainera, ondoren zehazten diren dokumentuak ekarri beharko ditu bere baitan.

a) Oroit-idazkia. Honako zehaztapen hauek behintzat adierazi beharko ditu:

– Instalazioaren kokagunea, edo, argindarra garraiatzeko edo banatzeko lineak direnean, linearen sorburua, ibilbidea eta helmuga.

– Instalazioaren helburua.

± Instalazioaren ezaugarri nagusiak.

b)Instalazioaren planoak, gutxienez ere 1:50.000 eskalan.

c) Instalaziorako kalkulatutako aurrekontua.

d) Euren kargu instalazioak eragindako ondasun edo zerbitzuak dituzten Herri Administrazioentzako, erakundeentzako eta, halakorik izanez gero, zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresentzako separatak.

e) Hala badagokio, garraio edo banaketa enpresak instalazioa bere sarera konektatzeko onespena eman duela egiaztatzea.

3.– Arestian 2. puntuan adierazitako aurreproiektuaren ordez, eskatzaileak, egoki baderitzo, instalazio proiektua aurkez dezake.

*9. artikulua.–* Ingurumenaren gaineko eragina balioztatzeko izapideak.

1.– Argindarra ekoizteko, garraiatzeko nahiz banatzeko instalazioen proiektuei ingurumenaren gaineko eraginaren balioztapena egingo zaie, ingurumenaren arloko legedian zehaztutako baldintzetan eta kasuetan.

2.– Ingurumenaren gaineko eragina balioztatzeko prozeduran xedatuta dagoen jendaurreko informazio erakustaldia, ondorio horietarako, administrazio baime-

Los solicitantes de autorización de instalaciones de distribución y transporte de energía eléctrica deberán cumplir los requisitos establecidos en los artículos 37 y 121 del Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, que les sean de aplicación, para el ejercicio de la actividad.

CAPÍTULO II
AUTORIZACIÓN DE INSTALACIONES DEL GRUPO PRIMERO

*Artículo 8.–* Solicitud de autorización administrativa.

1.– La solicitud de autorización administrativa se acompañará, en su caso, de la documentación que acredite la capacidad del solicitante en los términos que se señalan en el artículo 7.

2.– A la solicitud se acompañará un anteproyecto de la instalación, firmado por técnico competente y visado por su Colegio Oficial, que deberá contener los documentos que se indican a continuación.

a) Memoria en la que se consignen, como mínimo, las especificaciones siguientes:

– Ubicación de la instalación o, cuando se trate de líneas de transporte o distribución de energía eléctrica, origen, recorrido y fin de la misma.

– Finalidad de la instalación.

– Características principales de la misma.

b) Planos de la instalación a escala mínima 1:50.000.

c) Presupuesto estimado de la misma.

d) Separatas para las Administraciones Públicas, organismos y, en su caso, empresas de servicio público o de servicios de interés general con bienes o servicios a su cargo afectados por la instalación.

e) Acreditación, en su caso, de la conformidad de la empresa de transporte o distribución para conectar la instalación a su red.

3.– En lugar del Anteproyecto indicado en el punto 2, el peticionario podrá presentar, si lo estima conveniente, el proyecto de la instalación.

*Artículo 9.–* Trámites de evaluación de impacto ambiental.

1.– Los proyectos de instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica se someterán a evaluación de impacto ambiental en los términos y casos que determine la legislación prevista en materia de medio ambiente.

2.– A tales efectos, la información pública prevista en el procedimiento de evaluación de impacto ambiental, será llevada a cabo en la presente fase de autoriza-

neko fase honetan egingo da, 10. artikuluan adierazitako jendaurreko informazio erakustaldiarekin batera.

*10. artikulua.–* Jendaurreko informazio erakustaldia.

Administrazio baimenaren eskaerei jendaurreko informazio erakustaldiaren izapidea egingo zaie. Hala, bada, jendaurrean izango dira hogei egunez. Horretarako, eskaeren laburpen iragarkia argitaratuko da instalazioa dagoen lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Baldin instalazioak lurralde historiko bati baino gehiagori eragiten badio, instalazioak sorburu duen probintziako lurralde bulegoak izapidetuko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkia argitaratzea. Administrazio baimena eta, zehazki, herri onurakotzat izendatzea batera eskatuz gero, aurreko idatz-zatian adierazitako jendaurreko informazio erakustaldia batera egingo da bi eskaeretarako.

Jendaurreko informazio erakustaldiaren ondorioz alegaziorik aurkezten bada, alegazio horiek eskatzaileari helaraziko zaizkio. Eskatzaileak egoki deritzona jakinaraziko dio Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde bulegoari, gehienez ere hamabost eguneko epean.

*11. artikulua.–* Beste Herri Administrazio batzuei, erakundeei edo enpresei informazioa ematea.

1.– Euren kargu dituzten ondasun edo zerbitzuei eragiten dien partean, informazioa emango zaie Administrazioei, erakundeei edo, halakorik izanez gero, zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresei.

2.– Horretarako, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde bulegoak, aurreproiektuaren separata bat bidaliko die. Separata horren barruan izango dira instalazioaren ezaugarri orokorrak eta dagozkion kartografia dokumentuak; bai eta, hala badagokio, ingurumenaren gaineko eraginaren estudioa laburbiltzen duen dokumentua. Informazioa bidali zaien horiek, hogei eguneko epea izango dute eskatutako eskaeraren alde edo kontra agertzeko.

Epe hori igarota, baldin euren ondasun eta eskubideetan eragindako Administrazioek, erakundeek edo enpresek erantzun ez badute, eskakizuna egingo zaie berriz, hamar eguneko beste epe batean instalazioaren alde edo kontra ager daitezen.

Beste epe hori ere igarota erantzuteko eskatu zaion Administrazioak, erakundeak edo enpresak erantzun ez badu, instalazioa baimentzearekin bat datorrela ulertuko da.

3.– Eskatzaileari aldekotasunak edo aurkakotasunak jakinaraziko zaizkio, aurreko idatz-zatian xedatuari jarraituz. Eskatzaileak hamabost eguneko epea izango du adostasuna agertzeko edo egoki derizkion eragozpenak adierazteko.

ción administrativa, conjuntamente con la señalada en el artículo 10.

*Artículo 10.–* Información pública.

Las solicitudes de autorización administrativa se someterán al trámite de información pública durante el plazo de veinte días, a cuyo efecto se insertará un anuncio extracto de las mismas en el Boletín Oficial del Territorio Histórico donde radique la instalación y en el Boletín Oficial del País Vasco.

En el supuesto de que la instalación afecte a más de un Territorio Histórico, la publicación del anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco deberá tramitarse por la Oficina Territorial en cuyo territorio tenga su origen la instalación. En el supuesto que se solicite simultáneamente la autorización administrativa y la declaración, en concreto, de utilidad pública, la información pública a que se refiere el apartado anterior se efectuará conjuntamente para ambas solicitudes.

De las alegaciones presentadas, en su caso, como consecuencia de la información pública, se dará traslado al peticionario, para que éste, a su vez, comunique a la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo lo que estime pertinente en un plazo no superior a quince días.

*Artículo 11.–* Información a otras Administraciones Públicas, organismos o empresas.

1.– Se dará traslado a las distintas Administraciones, organismos o, en su caso, empresas de servicio publico o de servicios de interés general, en la parte que la instalación pueda afectar a bienes y derechos a su cargo.

2.– A los anteriores efectos, será remitida por la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo, una separata del anteproyecto, conteniendo las características generales de la instalación y la documentación cartográfica correspondiente y, en su caso, un documento de síntesis del estudio de impacto ambiental, en orden a que en un plazo de veinte días presten su conformidad u oposición a la autorización solicitada.

Transcurrido dicho plazo sin que los distintas Administraciones, organismos o empresas afectadas en sus bienes y derechos hayan contestado, se reiterará el requerimiento para que en un nuevo plazo de diez días se pronuncien sobre la conformidad u oposición a la instalación.

Pasado el plazo de reiteración sin haberse producido la contestación de la Administración, organismo o empresa requerida, se entenderá su conformidad con la autorización de la instalación.

3.– Se dará traslado al solicitante de la aceptación u oposición, según lo dispuesto en el apartado anterior, para que en el plazo de quince días preste su conformidad o formule los reparos que estime procedentes.

4.– Eskatzaileak eragozpenik adieraziz gero, haren erantzuna aurkakotasuna adierazi zuen Administrazioari, erakundeari edo enpresari jakinaraziko zaio. Jakinarazi zaion horrek hamabost eguneko epea izango du erantzun horren alde agertzeko edo eragozpenak adierazteko.

Baldin epe hori igarota Administrazio, erakunde edo enpresa horiek beste eragozpen-idatzi bat egin ez badute, eskatzailearen erantzunarekin bat datozela ulertuko da.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren garraio instalazioetarako baimena emateko, aldez aurretik, Energia Politikako eta Meategietako Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko da, Sektore Elektrikoaren Legeko (54/1997 Legea) 36.3 artikuluan eta 1955/2000 Errege Dekretuko (abenduaren 1ekoa) 114. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Horretarako, Energia Zuzendaritzak eskaera eta eskaerarekin batera doazen dokumentuak Energia Politikako eta Meategietako Zuzendaritza Nagusira bidaliko ditu. Zuzendaritza horrek txostena emango du, bi hilabeteko epean. Epe hori igarota oraindik txostena eman ez badu, jarduketek aurrera jarraituko dute.

*12. artikulua.*– Ebazpena.

1.– Energia Zuzendaritzak sei hilabeteko epean ebatzi eta ebazpena jakinaraziko du. Administrazio eskaera aurkezten denetik hasiko da epe hori, salbu eta instalazioaren ingurumenaren gaineko eragina balioztatzea beharrezkoa izan bada; halakoetan, balioztatze hori ebazten denetik hasiko da epea.

2.– Baimen eskaerei buruzko berariazko ebazpenik ezean, ukatutzat joko dira. Halakoetan, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio dagokion administrazio-agintariari.

3.– Instalazioa dagoen lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da ebazpena, eta jakinarazi egin beharko zaie eskatzaileari eta espedientean esku hartu duten edo esku har zezaketen Administrazio, erakunde publiko eta interes orokorreko zerbitzuen enpresa guztiei.

4.– Era berean, garraio instalazioak baimentzeko ebazpenak direnean, ebazpenak jakinarazi egin beharko zaizkio Ekonomia Ministerioko Energia Politikako eta Meategietako Zuzendaritzari eta Espainiako Energia Batzordeari.

5.– Administrazio baimenean adierazita egon beharko da baimen hori ematen denetik zenbateko epea dagoen gauzatzeko proiektua onartzea eskatzeko. Orobat, administrazio baimenean adierazita egon beharko da epe hori igarota onarpen hori eskatu ez bada iraungi egingo dela, eta eskatzaileak, arrazoi justifikatuengatik, ezarritako epea luzatzea eska dezakeela.

*13. artikulua.*– Gauzatzeko proiektua onartzea.

4.– En caso de reparos del peticionario se trasladarán los mismos a la Administración, organismo o empresa que formuló la oposición, en orden a que en el plazo de quince días muestre su conformidad o reparos a dicha contestación.

Transcurrido dicho plazo sin que las Administraciones, organismos o empresas citadas, emitieran nuevo escrito de reparos, se entenderá la conformidad con la contestación efectuada por el peticionario.

5.– La autorización de las instalaciones de transporte que sean competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, requerirá el informe previo de la Dirección General de Política Energética y Minas, según se determina en el artículo 36.3 de la Ley 54/1997, del Sector Eléctrico y en el artículo 114 del Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre.

Para ello, la Dirección de Energía remitirá la solicitud y la documentación que la acompaña a la Dirección General de Política Energética y Minas, que emitirá informe en el plazo de dos meses. Si transcurrido dicho plazo no lo hubiera emitido, se proseguirán las actuaciones.

*Artículo 12.*– Resolución.

1.– La Dirección de Energía resolverá y notificará la Resolución en el plazo de seis meses, desde la presentación de la solicitud de autorización administrativa salvo que la instalación hubiera requerido estimación de impacto ambiental, en cuyo caso dicho plazo se computará desde que se resuelva la citada estimación.

2.– La falta de resolución expresa de las solicitudes de autorización, tendrá efectos desestimatorios pudiendo interponerse, en su caso, recurso de alzada ante la autoridad administrativa correspondiente.

3.– La resolución deberá publicarse en el Boletín Oficial del Territorio Histórico donde radique la instalación y el Boletín Oficial del País Vasco y deberá ser notificada al solicitante, y a todas las Administraciones, organismos públicos y empresas de servicios de interés general que intervinieron o pudieron intervenir en el expediente.

4.– Igualmente, cuando se trate de resoluciones por las que se autoricen instalaciones de transporte, las mismas deberán notificarse a la Dirección de Política Energética y Minas del Ministerio de Economía y a la Comisión Nacional de la Energía.

5.– La autorización administrativa expresará el periodo de tiempo contado a partir de su otorgamiento en el cual deberá ser solicitada la aprobación del proyecto de ejecución, indicando que se producirá su caducidad si transcurrido dicho plazo aquella no ha sido solicitada, pudiendo solicitar el peticionario, por razones justificadas, prórrogas del plazo establecido.

*Artículo 13.*– Aprobación del proyecto de ejecución.

1.– Eskatzaileak edo baimenaren titularrak, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde bulego egokian, gauzatzeko proiektua onartzeko eskaera aurkeztuko du, teknikari eskudunak sinatuta eta haren elkargo ofizialak ikus-onetsita. Aplikagarri diren araudi teknikoei, Administrazio aginpidedunak onartutako arau bereziei eta gainerako arau teknikoei jarraituz taxututa egon behar da gauzatzeko proiektu hori, eta ondoren zehaztutako dokumentuak izan beharko ditu bere baitan:

a) Oroit-idazkia. Honako zehaztapen hauek behintzat adierazi beharko ditu:

– Instalazioaren kokagunea, edo, linea elektrikoak direnean, linearen sorburua, ibilbidea eta helmuga.
– Instalazioaren helburua.
– Instalazioaren ezaugarri nagusiak.
– Aplikatzekoa den araudian agindutako kalkuluak eta gainerako datu eta zehaztapenak.

b) Instalazioaren planoak, dagozkien araudietan eskatutakoari jarraituz.

c) Espezifikazio orria.

d) Aurrekontuak.

e) Segurtasuneko eta osasuneko estudioa, edo segurtasuneko eta osasuneko oinarrizko estudioa, dagokionean dagokiona.

Administrazioen, erakundeen edo zerbitzu publikoko edo interes orokorreko zerbitzuetako enpresen menpe dauden ondasun, instalazio, obra, zerbitzu, zentro edo zonei eragiten dieten proiektuaren parteak separata gisa aurkeztuko dira.

2.– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde bulegoak aurkeztu den proiektuaren separatak euren ondasun eta eskubideetan eragindako Administrazio, erakunde edo enpresei bidaliko dizkie. Separatak bidali zaizkien horiek baldintza teknikoen zerrenda egokia zehaztu beharko dute, hogei eguneko epean.

3.– Ez da beharrezko izango baldintzen zerrenda hori eskuratzea, honako egoera hauetan:

a) Administrazio, erakunde eta enpresa horiek Energia Zuzendaritzarekin arau orokorrak hitzartu dituztenean, dela instalazioak ezartzeko, dela linea elektrikoek zeharkatuta edo linea elektrikoak mugakide dituztela egon daitezen artikulu honen 2. idatz-zatian aipatutako ondasun, instalazio, obra, zerbitzu, zentro edo zonak.

b) Dagozkien separatak bidali eta hogei egun igaro direnean, eta eskaera berriz egin eta hamar egun igaro direnean, erantzunik jaso gabe, onartutzat joko dira instalazioaren eskatzaileak gauzatzeko proiektuan proposaturiko zehaztapen teknikoak.

4.– Eskatzaileari, ezarritako baldintzen zerrendak jakinaraziko zaizkio. Eskatzaileak hamabost eguneko epea izango du adostasuna agertzeko edo egoki derizkion eragozpenak adierazteko.

1.– El peticionario o el titular de la autorización presentará en la Oficina Territorial de Industria, Comercio y Turismo correspondiente una solicitud de aprobación del proyecto de ejecución, junto con el citado proyecto firmado por técnico competente y visado por su Colegio Oficial, elaborado conforme a los Reglamentos Técnicos, normas particulares de las empresas distribuidoras aprobadas por la Administración competente y demás normas técnicas aplicables, y que deberá contener los documentos que se indican a continuación:

a) Memoria en la que se consignen, como mínimo, las especificaciones siguientes:

– Ubicación de la instalación o, cuando se trate de líneas eléctricas, origen, recorrido y fin de la misma.
– Finalidad de la instalación.
– Características principales de la misma.
– Cálculos y demás datos y especificaciones ordenados en la reglamentación aplicable.

b) Planos de la instalación según lo exigido en los Reglamentos correspondientes.

c) Pliego de condiciones.

d) Presupuestos.

e) Estudio de seguridad y salud o Estudio básico de seguridad y salud, según proceda.

Se presentarán en forma de separata aquellas partes del proyecto que afecten a bienes, instalaciones, obras, servicios, centros o zonas dependientes de otras Administraciones, organismos o empresas de servicio público, o de servicios de interés general.
